

Euskal AEko establezimendu-kopurua %1,3 jaitsi da 2013an

Aurreko urtearen aldean, jarduerari ekin eta utzi ziotenen arteko saldoa -2.406 da

2014ko hasieran, Euskal AEn 159.001 enpresa 176.879 establezimendutan (lantegiak, dendak, bulegoak ...) ari ziren, aurreko urtean baino %1,3 gutxiago, Eustaten datuen arabera.

Aurreko urtearen aldean, Administrazio publiko, hezkuntza eta osasungintza sektorean establezimenduak %3,7 gehiago dira; Informazio eta komunikazioetan %3,1; Finantza jarduerak eta aseguruak %1,6; Jarduera artistiko eta beste zerbitzuak %1,2. Higiezinak %13,1; Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza %9,4.

Establezimendu kopurua, jarduera-adar eta urte arteko aldakuntza-portzentajearen arabera. 2014/01/01

	Euskal AE		Araba/Álava		Bizkaia		Gipuzkoa	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Guztira	176.879	-1,3	24.938	-1,7	91.310	-0,7	60.631	-2,2
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	6.494	-9,4	1.940	-6,3	2.087	-9,8	2.467	-11,4
Industria, energia eta saneamendua	12.467	-2,7	2.117	-1,4	5.475	-3,4	4.875	-2,5
Eraikuntza	21.412	-5,4	2.782	-6,2	10.878	-4,2	7.752	-6,9
Merkataritza, garraioa eta hostalaritza	68.076	-0,9	9.035	-1,1	36.464	-0,4	22.577	-1,6
Informazioa eta komunikazioak	3.173	3,1	375	-1,1	1.798	6,8	1.000	-1,6
Finantza jarduerak eta aseguruak	5.031	1,6	714	-1,7	2.684	1,7	1.633	2,8
Onibar-jarduerak	2.960	-13,1	221	-6,8	1.723	-12,1	1.016	-15,9
Jarduera profesionalak eta lagungarriak	27.998	0,0	3.809	-0,3	14.917	-0,1	9.272	0,2
Herri administrazioa, hezkuntza eta osasuna	16.705	3,7	2.215	2,5	8.932	4,2	5.558	3,3
Arte jarduerak eta beste zerbitzu batzuk	12.563	1,2	1.730	0,5	6.352	2,1	4.481	0,2

Iturria: Eustat. Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda

Establezimendurik gehien, Merkataritza, garraio eta ostalaritzak, %38,5; Jarduera profesional eta laguntzaileak %15,8; Eraikuntzak %12,1.

Langile-kopuruari begiratuz gero, Merkataritza, garraio eta ostalaritza berriz ere (%26,3); Jarduera Ekonomikoen Direktorioak kontabilizatutako guztizkoa, 849.335 langile. Administrazio publiko, hezkuntza eta osasungintzak %22,1 eta Industria, energia eta saneamenduak %20,7.

Sektore-egitura bestelakoa da lurraldeen artean. Araban pertsonarik gehien Industria, energia eta saneamenduak (enplegatu guztien %27,3); Administrazio publiko, hezkuntza eta osasungintzak %23,9; Merkataritza, garraio eta ostalaritzak %22,6.

Bizkaian Merkataritza, garraio eta ostalaritzak %27,4; Administrazio publiko, hezkuntza eta osasungintzak %22,0; Industria, energia eta saneamenduak %16,1.

Gipuzkoan Merkataritza, garraio eta ostalaritzak %26,2; Industria, energia eta saneamenduak %24,4. Administrazio publiko, hezkuntza eta osasungintzak %21,3.

Establezimenduen tamainaren arabera 2013an, aurreko urtean bezalatsu. Apenas 2.244 establezimenduk -guztirakoaren %1,3k- dauzkaten 50 enplegu edo gehiago; hauen enplegua guztirakoaren %38,9 da. 132.369 establezimendu, guztizkoaren ia hiru laurden, ez dira 3 lanpostura heltzen eta enplegu guztiaren %19,4 bakarrik hartzen dute.

Establezimenduen jarduera-adarraren arabera batez besteko tamainaz, enplegu-kontzentrazioa handiena, bai Euskal AEn, bai lurraldeetan, Industria, energia eta saneamenduan da. Euskal AEn establezimenduko batez besteko tamaina 14,1 enplegu da. Araban 17,9; Gipuzkoan 14,2 eta Bizkaian 12,5. Administrazio publiko, hezkuntza eta osasungintzan establezimenduen batez besteko tamaina: 15,0 Araban, 10,5 Bizkaian eta 10,8 Gipuzkoan.

ENPRESAK

Enpresen (establezimenduen jardueraren euskarri, unitate juridiko) %97,7k Euskal AEn dute egoitza; 3.695ek estatuen gainerakoan. 80.045 enpresak, erdia pasatxok, Bizkaian dute egoitza; 53.940k (%33,9k) Gipuzkoan; 21.321ek (%13,4k) Araban.

Enpresen batez besteko tamainak lehengoan dirau: 5,3 okupatu enpresako, 4,8 establezimenduko. Nortasun juridikoaren arabera azterketan alde nabarmenak daude. Titularra Pertsona Fisikoa denean, 1,4 enplegu, bai enpresako, bai establezimenduko; gainerako forma juridikoetarako batez besteko horiek 11,1 eta 9,0 okupatu dira, enpresako eta establezimenduko.

ENPRESA-DEMOGRAFIA

Jarduera hasi duten eta eten duten enpresen arteko saldo garbia, -2.406.

Demografia jardueraren arabera aztertzean, Merkataritza, garraioa eta ostalaritza (alten %33,0 eta baje %31,6), Eraikuntza (alta guztien %15,7 eta baje guztien %20,5), Jarduera profesional eta laguntzaileak (alta guztien %18,8 eta baje guztien %15,7) nabarmentzen dira.

Establezimenduen demografia. Euskal AE. 2014/01/01

Jardueraren arabera	Altak	Irteerak	Nortasun juridikoaren arab.	Altak	Irteerak
Total	14.796	17.202	Guztira	14.796	17.202
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	382	1.060	Pertsona fisikoa	9.554	11.003
Industria, energia eta saneamendua	647	1.059	Akziokako elkarteak	304	773
Eraikuntza	2.324	3.523	Elkarte mugatua	3.511	3.888
Merkataritza, garraioa eta hostalaritza	4.885	5.435	Bestelako elkarteak	1.306	1.434
Informazioa eta komunikazioak	477	395	Bestelako forma juridikoak	121	104
Finantza jarduerak eta aseguruetak	570	500			
Onibar-jarduerak	201	651			
Jarduera profesionalak eta lagungarriak	2.778	2.708			
Herri administrazioa, hezkuntza eta osasuna	1.444	933			
Arte jarduerak eta beste zerbitzu batzuk	1.088	938			

Iturria: Eustat. Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda

Errotaziorik handiena Pertsona Fisikoaren formula juridikoarekin sortutako establezimenduetan gertatzen da: alden %64,6 eta baje %64,0.

Pertsona fisiko diren establezimenduetan dugu enplegatuen alden %37,6 eta baje %38,2. Sozietate mugatuetan alden %32,3 eta baje %33,2.

Establezimenduen tamainaren arabera, geruzarik dinamikoena 2 enplegu edo gutxiagokoa da, ohi bezala. Berak bakarrik alta guztien %90,6 eta baja guztien %89,6 hartu ditu.

Establezimendu handien (50 langile edo gehiago) geruzan alden eta baje %0,2 dugu, besterik ez. Aldiz, enplegatuen alta guztien %10,0 eta baje %7,4.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz
Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62
[Euskal enpresen egitura eta demografiari buruzko Prentsa-oharrak](#)
[Euskal enpresen egitura eta demografiari buruzko datu-bankua](#)